


## Erdoñana-Aspuru

Arabako Lautadako hondar basoak, baltsak eta muinoak



### Kokapena


Ibilbideak Donemiliaga udaleko lurrak zeharkatzen ditu; lehendabiziko partean bailarako hondotik doa, non lehengo harizti hezeen adibide txikiak dauden. Bigarren partean 700 metrotako altuera eskasa duten Berrein eta Udalako tuparrizko muinoak zeharkatzen ditu.

### Lautadako Hondar-basoak

Mezkia, Erdoñana eta Luzuriagako basotxoak Lautadako lur sakonetan zeuden bosoen azken hondarrak dira. Noizbehinka urak gainezka egin ohi zuen tokietan agertzen ziren, haritzia zuhaitz nagusia izanik, lizarra eta erkametza ere agertzen ziren (bigarren honekin haritzia hibridatzen zelarik). Salburuako urmaeletan bezala ur maila azaletik oso gertu dagoenez era naturalean urmaelak sortzen dira. Horretaz baliatuz nekazarientzat ureztatzeko baltsa ugari erraz egin dira azkeneko urteetan. Baso hauek Arabako 27 Europako Gune Garrantzitsuetako bat osatzen dute.

### Donemiliaga baseliza

Erdi aroko eraikina da eta horren berri XVI. mendeko agiri batean agertu da. Donemiliaga edo Egirazko Hermandadeko egoitza izan zen. Atearen gainaldean Gaztela eta Leongo armari barrokoa dago Hegoaldeko aldean 1819ko inskripzioa dago, horretan Paula Ruiz de Arbuloren heriotzaz berri ematen da, zein tximista batek jo eta bertan hil zuen baselizan aterpea bilatzen ari zela.



### Zornostegiko deserria

2005eko irailan UPV-EHUko arkeologo talde batek zuzenduta Zornostegiko indusketak (Luzuriagan), hasi ziren. Toki horretan izen bereko herria egon zen; Erdi aroko herrixka zen, duela mila urte eraikia eta duela 600 urte, Goi Erdi Aroan, abandonatua.

## IBILBIDEA

**0 Km. / 0 or. 0'** Abiapuntua **Erdoñanako udaletxea** da. Parkeko uztamakina zaharrak ikusi eta **Jasokunde eliza** aztertu ondoren errepidetik 200 metro inguru ibiliko gara **San Millan basilizaraino**. Lehengo Egirazko Hermandadearen egoitza guretzat izango da gaur norabide aldaketa. Mendebalderantz joko dugu (ezkerretera). Hor hasten den bideak hondakindegia batera eramaten gaitu eta soro baten ertzetik jarraitzen du. Muinoak **Alto Arbara** du izena eta kilometro bat inguru egin ondoren hondar-basoa eta berau inguratzen duen pistaren aurrean geldituko gara.

**1,73 Km. / 0 or. 25'** Pixka bat jeitsi eta lur sailaren ertzetik 200 metro ibili beharko dugu pistaren hasierarekin bat egin arte. **Luzuriagako** baltsara hurbilduko gara eta gure eskubitara, hariztian barneratzen den bideari jarraituko diogu. Baso hezea da; goroldioz, likenez beteta eta putzu askorekin lurrian. Bapatean bidea desagertu eta 50 metro eskas sorotik egin ondoren beste partzelaria agertu da. Azkenik, galtzerik gabe, (Agurainerako errepidea gurutzatu ondoren) honek Luzuriagara eramango gaitu.

**3 Km. / 1 or. 00'** Herriaren goialdean dagoen plaza zabalak eta **San Maria elizak** merezi dute. Baskularen ezkerretatik hasiko gara jaisten, baina azkeneko etxeetara iristerakoan eskumatara egingo dugu **Luzuriaga erreka** zeharkatzea zilegi egingo digun zubitik, garai batean Santiago bidean derrigorrezko bidea. Zubia gurutzatuta, Hegoaldeko norabidea (ezkerretara) duen partzelaria hartuko dugu, **Urasti** izeneko tokitik. Hegoalde-Hegomendebalde norabidea mantenduko dugu, nahiz eta **Zornostegiko deserritik** datorren errepidearekin gurutzatu. Azkenik **Zuhatsu Donemiliagara** iritsiko gara.

**6 Km. / 1 or. 45'** **Zuhatsuko elizaren** bila abiatuko gara (bere tamainarengatik erraz topatuko dugu). Han hamaiketakoa hartzeaz gain, indarrak jaso ahal ditugu handik aurrera gora egin behar baitugu. Elizatik ateratzen da **Udala** eta **Berrein** (Berreño) munoetara doan bidea. Elizatik pasa eta berehala ezkerretara egingo dugu, bailaratxoaren beste aldera. Toki honetatik aurrera, ipar norabidea jarraituko beharko dugu, biderik argiena eta gora doana hautatuz. Gure eskubitara **Sorgin** tokiko baso baxua lehenago eta Aguraingo lurretan dagoen **Aranbalzako kañadaren** harizti iluna beranduago utziko ditugu. Alanbre hesia gurutzatu eta gero, **Berrein** inguratuko dugu eta **Aspurbeta** izeneko tokira iritsiko gara, non norabidea aldatuko dugun.

**9 Km. / 2 or. 35'** Eskubiko (**Narbaiza**) eta ezkerreko (**Aspuru**) aukeren artean bigarrena hautatuko dugu. Hasiera batean bide ona da, nahiz eta gero basoan nahastu eta alambrada batzuk gurutzatzera behartu. Belardi batera ailegatuta Aspurura doan partzelaria ikusiko dugu eta Agurainerako errepidea gurutzatu ondoren helmugan utziko gaitu.

**13 Km. / 3 or. 35'** **Aspuru**

